

Odol motaren arabera dietaren zentzugabekeria

1996. URTEAN Peter Adamok *Eat right for your type* liburua eman zuen argitara. Berehala *best seller* bilakatu zen, eta 50 hizkuntzataraz itzuli zuten. Naturopata horren arabera, odol taldearen arabera jakiak jateak, pisu galeran eragiteaz gain, jatorri birala edo bakteriala duten hainbat gaixotasunen prebentzioan (minbizia, diabetesa, zirkulazioko gaixotasunak...) lagun dezake.

Adamoren iritziz, 0 taldea da gizakiengan zaharrena, ehiztarien eta biltzaileen garaikoa. Beraz, talde horretako pertsonen proteinetan oparoak diren jakiak (haragia, arraina) jan beharko lituzkete. Aldiz, odolaren A taldea neolitikoko nekazaritzarekin batera azaldu omen zen, eta odol hori duten pertsonen landare eta fruta jale izan behar lukete.

Urtarrilaren 15ean, Torontoko Unibertsitateko Ahmed El-Sohemy doktoreak sinatutako artikulua argitaratu zuen *PlosOne* aldizkariak. Ikertzaileak dioenez, ez dago loturarik odol motaren eta jaki motaren artean. El-Sohemyren taldeak, 1.455 lagun aztertuta, ondorioztatu zuen pisu galera zein gaixotzeko joera baldintzatzen duten faktoreak berdinak direla odol talde guztietako pertsonengan. Hau da, zaren odol taldekoa zarela, gutxiago jaten baduzu argaldu egingo zara, eta diabetesa edota minbizia prebenitzeko gauza berdinak saihestu behar dituzu. ■



ALEX-CC BY

Migrainaren eragina gutxitzeko bideak

Ziurrenik burukoa da minik arruntena gure bizitzan. Batzuetan oso garbi dugu zergatik gertatzen zaigun, baina besteetan ez. Aldiro errepikatzen denean, askotan horrekin bizitzen ohitzea baino ez zaigu geratzen. Ikerketa baten arabera, migrainari aurre egiteko botikak bezain garrantzitsua da informazioa.

ttiki.com/59924
(Gaztelaniaz)

Nanoguneren bosgarren urteurrena

Donostian dagoen Nanogune zentroak bost urte bete zituen joan den urtarrilaren 30ean. Eskala kuantikoaren oinarriko zientzia ikertu eta teknologiak garatzen dituen Euskal Herriko zentroa erreferentzial bihurtu da munduan. Zorionak!

ttiki.com/59925
(Inglesez)

Tabakoari lotutako birusa erleen hiltzaile

Txinako Nekazaritza Zientzien Akademiako Ji Lian Li-k egin dako ikerketaren arabera, tabako landarean bizi den birus batek uste baino eragin handiagoa izan dezake erleen populazioaren beherakadan. Erleak polena hartzean kutsatzen dira, eta erlauntzean erregina kutsatzen dute. Hark, ondoren, birusa transmititzen die ipintzen dituen arrautzei.

ttiki.com/59926
(Frantsesez)

Rosetta zunda espaziala “esnatu” egin da

ESA



31 HILABETE isilean izan ondoren, urtarrilaren 20an lanean hasi zen Rosetta zunda espazial europarra. Lurretik 800 milioi kilometrora dagoenez, bidalitako lehen seinaleak 45 minutu behar izan zuen guregana heltzeko.

Zundak hainbat kometa aztertu behar ditu. Lehena 67P/TG izeneko izango da, lau kilometroko diametroa duen izotz bola.

Zunda maiatzean hurbilduko zaio kometari eta azaroan bertan lur hartzea espero da. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16